

FAUNA PUBLIKOA

“EITB Maratoian laguntzen ari naiz iktusaren alde (...) tarte zoragarria izaten ari da, adin guztietako pertsonen elkartasun deiak hartzen”

Jon Darpon, Jauriaritzako Osasun sailburua (Twitter)

Telemaratoi gutxiago, aurrekontu gehiago




Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Gutxien espero duzunean –inoiz ez baituzu aurreikusiko iktus bat– antzaldatzen du kolpe zorrotz batez maite duzun norbait, esaldi tonto baten ondoren: “Beso txingurrututa nabaritzen dut”, zer pentsatu behar zenuen halakorik, paralizatuta geratu zaio gorputz erdia bazkaltzen ari zineten bitartean, hortxe, mahaian, beti esertzen den lekuan; edo berba egiten hasi da ulertzen ez diren hitzekin, eta gero anbulantzia, ospitaleko pasilloak, noraeza, “azkar garatzen den garunaren galera funtzionala”, “bururako odolaren garraioaren asaldura”, iskemia, tronbo, enbolia irakurriko dituzu telefonoko pantailan, itxarongelan zerbait ulertu nahian ari zaren bitartean, zehazki zer izan den jakiteak ezer konponduko balu bezala.

Gero, agian, pasako da. “Harrigarria da nola errekupeatu den”, dio medikuak, baina onenera etorriko da errehabilitazio luze eta gogor bat. Eta gaitzerdi zeren, txarrenera, badakigu zer. Eta beldurrak: behin gertatu bada, zerk ziurtatzen dizu ez dela berriz gertatuko. Tarteka errebisioak, dena ondo doala esaten diote, kezka gainetik kendu ezinda jarraitzen duzu.

Herritarrek beren poltsikoetatik euroz euro jarrita, zentimoz zentimo, munduko borondaterik onenarekin, 402.000 euro bildu ziren abenduaren 15ean iktusaren ikerketarako EITB Maratoian. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 5.000 pertsonari erasotzen die urtean, bada osasungintza publikoak serio hartu beharreko kontu bat. Eta horregatik iruditzen zait fribolitate jasanezina Osasun sailburua *crowdfunding* batean jendeari diru-eske aritzea: iktusaren ikerketarako askoz fondo gehiago bideratzeko aukera bere erabaki soil baten menpe legoke. Telemaratoi gutxiago, aurrekontu gehiago. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



21-D

**LLIBERTAT
DIGNITAT
DEMOCRÀCIA!**

**THE END
IS
NEAR!!!**

